

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4196

43/2021 EBAZPENA, uztailaren 12koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita 2021eko lehen seihilekoan Gobernu Kontseiluak zuzenean emandako dirulaguntzak argitaratzea.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratuak –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsia, eta martxoaren 26ko 1/2015 Legearen artikulua bakarrak aldatua– 49.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, Gobernu Kontseiluak zuzenean ematen dituen dirulaguntzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira; beraz, agindu hori betetzeko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2021eko lehen seihilekoan Gobernu Kontseiluak zuzenean emandako dirulaguntzen zerrenda argitaratzea, zeina ebazpen honen eranskin gisa jasotzen baita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 12a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2021eko uztailaren 27a, asteartea

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO
ZUZENDARIAREN UZTAILAREN 12KO 43/2021 EBAZPENARENA

2021EKO LEHENEGO SEIHILEKOAN GOBERNU KONTSEILUAK ZUZENEAN EMANDAKO DIRULAGUNTZEN
ZERRENDA

Erakunde eta pertsona onuradunak / Xedea	Saila	Data	Zenbatekoa (eurotan)
Erabakia, Otxarkoaga lanbide-eskolari dirulaguntza zuzen bat ematen diona, ikastetxearen hezkuntza-jarduera espezifikoak sortutako defizita finantzatzeko.	Hezkuntza	2021-01-19	300.000
Erabakia, CPEIPS San Franzisko Xabier HLBHIP – Arizmendi Ikastola eta CPEIPS Sta. María de la Providencia – Aldatze HLBHIP itunpeko ikastetxei zuzeneko dirulaguntzak ematen dizkiena, 2020-2021eko ikasturtean zeinu-mintzairako interpreteak kontratazeko.	Hezkuntza	2021-04-13	49.769,12
Erabakia, «Addameer, Prisoner Support and Human Rights Association» erakundeari zuzeneko dirulaguntza ematen diona, Israelgo espetxeetan preso eta atxilotuta dauden palestinarren eskubideak defendatzeko, arreta berezia jarriz COVID-19 pandemiak sortutako egoeran.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak	2021-04-20	150.000
Erabakia, Erain Elkarteko Osasun Mentala erakundeari zuzeneko dirulaguntza ematen diona, osasun mentaleko arazoak dituzten eta egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen arreta psikosoziala eta sozioedukatiboa emateko Enea programa garatzeko.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak	2021-05-11	106.490
Erabakia, Oinarizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak emateko eskumena eskuordetuta duten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batzuei zuzeneko dirulaguntzak ematen dizkiena, COVID-19k 2020ko ekitaldian eragindako ezohiko gastuak finantzatzeko.	Hezkuntza	2021-05-18	68.116,87
Erabakia, IM-Defensoras erakundeari zuzeneko dirulaguntza ematen diona, Mesoamerikako giza eskubideen defendatzaileentzako babes integral feminista eskualdeka indartzeko, Covid-19ren testuinguruan.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak	2021-05-18	160.000
Erabakia, Dialogue Advisory Group Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematen diona, elkarriketa politikoa errazteko, indarkeria murrizteko eta gatazka prebenitzeko Aintzira Handietan, Mozambiken, Venezuelan eta Sri Lankan, COVID-19ren testuinguruari arreta berezia jarriz.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak	2021-05-18	250.000

2021eko uztailaren 27a, asteartea

Erakunde eta pertsona onuradunak / Xedea	Saila	Data	Zenbatekoa (eurotan)
Erabakia, «GAVI-LA Alianza Mundial por la Vacunación» elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematen diona, COVAX-AMC taldeko kideei COVID-19 txertoak eskuratzeko.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak	2021-05-25	500.000
Erabakia, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoei zuzeneko dirulaguntza ematen diona, doako laguntza juridikorako lankidetzahitzarmenean aurreikusitako jarduerak finantzatzeko.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak	2021-05-25	1.950.000
Erabakia, Guatemalako Antropologia Forentseko Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematen diona, Guatemalako barne-gatazka armatuan desagertutako pertsonen kasuetan egia eta justizia argitzeko ikerketa-prozesuetan haren jarduna eta Giza Eskubideen Prokuradoretzarena indartzeko.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak	2021-06-01	175.000
Erabakia, Itsas Salbamendu Humanitarioa elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematen diona, Aitamari Maydayteraneo proiekturako.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak	2021-06-15	250.000
Erabakia, Euskampus Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematen diona, KSI gela sustatzeko ekintzak finantzatzeko.	Hezkuntza	2021-06-29	100.000